

Arratiako Tranbiari buruzko erakusketaren lehen geldialdia Igorren

Otsailaren 13an inauguratuko dute erakusketa Igorreko Lasarte Aretoan

*Bilbotik Durango eta Arratiarako Tranbia Elektrikoa. 50 urte Arratiako Tranbia barik erakusketak Zeanurin hasi zuen bere ibilbidea urtarrilaren 30ean eta datorren ostiralean, **otsailaren 13an lehen geldialdia egingo du Igorren**; bertan egongo da **ikusgai hilaren 27ra arte**. Arratsaldeko 19:00etan inauguratuko da Igorreko Lasarte Aretoan. 150 argazkik, zinema irudiek (Julian Elejoste, Felipe Manterola eta NODOren grabazioek), prentsa*



Tranbia Zeanurin. Bere zain Gasteizerako autobusa.

albisteek, grafikoek, tranbiako txartelek eta maketek osatzen dute erakusketa. Gainera, Juanjo Olaizolak

—Burdinbidearen Euskal Museoko zuzendariak— Arratiako Tranbiaren historiari eta garrantziari buruz hitz egingo du.

Ehun urtetik gora igaro dira, gehienbat Arratiako tranbia izenaz ezagutzen den Bilbotik Durango eta Arratiarako Tranbia Elektrikoa jaio zenetik; eta 2014ko azaroaren

*30ean bere heriotzaren 50. urteurrena bete zen. Urteurrena aitzakiatzat hartuz, eta garraio bide zahar haren gorabeherak ezagutzera emateko asmoz, Zertu Kultur Elkartek, Bizkaiko Foru Aldundiaren babesaz, *Bilbotik Durango eta Arratiarako Tranbia Elektrikoa. 50 urte Arratiako Tranbia barik* erakusketa ibiltaria antolatu du.*



Arratiako tranbiaren azken aztarna Igorreko Garbera eraman zuten 1966ko otsailaren 6an

Igorren otsailaren 13a eta 27a bitartean egongo da ikusgai, eta hurrengo geltokiak Lemoa, Galdakao, Areatza, eta Bilbo izango dira. Azken geldialdia Bilbon, Bizkaiko Foru Liburutegian egingo du; hemen urritik abendura izango da ikusgai.

BILBOTIK DURANGO ETA ARRATIARAKO TRANBIA ELEKTRIKOAREN KRONOLOGIA

- * **1898ko abuztuaren 3an:** Bilbotik Durango eta Arratiarako lurren-tranbiaren kontzesiorako enkantearen iragarpena argitaratzen du Estatuko Aldizkari Ofizialak.
- * **1898ko azaroaren 16an:** Bilbo, Durango eta Zeanuri artean ibiliko den tranbiaren kontzesioa Ángel de Iturraldere eskuetan geratzen dela ezagutzera ematen duen Errege Agindua argitaratzen da.
- * **1899ko urtarrilaren 9an:** Tranvía Eléctrico Bilbao a Durango y Arratia (TBDA) konpainia sortu zen.
- * **1899ko martxoaren 11n:** Tranbiaren lanak inauguratzeko ekitaldia egin zen Areatzan.
- * **1899ko irailaren 2an:** Tranbiaren behin-behineko inaugurazioa, animalia-trakzioaren bidez, Lemoa-Artea bitartean. Aldi berean, Gasteizerako autobus-zerbitzu konbinatua martxan jarri zen.
- * **1900eko otsailaren 22an:** Erreal Ordenaren bidez Bilbotik Durango eta Arratiara tranbia elektrifikatzeko baimena eman zen.
- * **1901eko ekainean:** Enpresak lehenengo tranbia elektrikoak jaso zituen.
- * **1902ko uztailaren 5ean:** Probak egiteko lehenengo tranbia Durangora iristen da
- * **1902ko abuztuaren 1ean:** Lemoa-Zeanuri tartean argindarrak mugitutako tranbien zerbitzua hasi zen.
- * **1902ko urriaren 15ean:** Abusuko zubiaren proba ofizialak. Sasoi hartan estatu mailan zegoen hormigoizko armatuzko handiena zen.
- * **1902ko abenduaren 7an:** Bilbotik Durango eta Arratiarako Tranbia Elektrikoaren behin betiko inaugurazioa.
- * **1911ko ekainaren 12an:** Ferrocarriles Vascongados Konpainiak Bilbotik Durango eta Arratiarako Tranbia Elektrikoaren akzioak erosi zituen.
- * **1937ko maiatzean:** Amorebieta-Durango tarteko zerbitzua eten egin zen.
- * **1938ko azaroaren 30ean:** Amorebieta-Durango tarteko bideak eta elektrifikazioa kentzen hasten dira.
- * **1950eko martxoaren 27an:** Lemoa-Amorebieta tarteko zerbitzua itxi egin zen.
- * **1953ko urriaren 15ean:** Uholdeen ondorioz, Bilbo-Lemoa tarteko zerbitzua gelditu egin zen. Harrezkero, tranbiak ez ziran Arriaga Antzokiaren plazaraino heltzen.
- * **1953ko urriaren 19an:** Lemoa-Urbi tarteko zerbitzua berriz jarri zen martxan.
- * **1954ko otsailaren 24an:** Bilbo(Urazurrutia)- Zeanuri tartean guztiz berrezarri zen zerbitzua.
- * **1956ko abuztuaren 1ean:** Galdakao(Plazakoetxe)-Lemoa tartea itxi egin zen.
- * **1958ko urriaren 1ean:** Urbi-Galdakao (Plazakoetxe) tartea itxi egin zen.
- * **1964ko azaroaren 2an:** Zeanuri-Lemoa-Bilbo eta Urbi-Bilbo autobus lineak zabaldu ziren.
- * **1964ko azaroaren 29an:** Arratiako tranbiaren azken bidaia eta agurreko jaialdia.



Arratiako tranbia Arriaga Antzokiaren plazako geltokian

* **1964ko azaroaren 30ean:** Lemoa-Zeanuri eta Bilbao-Urbi tartek behin betiko itxi egin ziren. Arratiako tranbia desagertu egin zen.